EBAZPENA, 2022KO AZAROAREN 25EKOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ARGITARATZEN BAITIRA INDARREAN DAUDEN LAN-POLTSEN ZERRENDAK, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEAREN 2022KO ABUZTUAREN 30EKO EBAZPENAREKIN BAT ETORRIZ

RESOLUCIÓN DE 25 DE NOVIEMBRE DE 2022, DEL VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA, POR LA QUE SE DISPONE LA PUBLICACIÓN DE LOS LISTADOS DE LAS BOLSAS DE TRABAJO VIGENTES, DE ACUERDO CON LA RESOLUCIÓN DE 30 DE AGOSTO DE 2022 DEL VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA

AURREKARIAK

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duenak, 4.3 artikuluan ezartzen du epaia betearazteko edo langileak transferitzeko EAEko Administrazio Orokorrean zerbitzuak ematen ari diren langileak dagokion kidego, eskala edo aukerari edo lan-kategoriari dagokion lan-poltsan sartuko direla.

Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez, epea ireki zen epaiak betearaztearen edo langileak transferitzearen ondorioz zerbitzuak ematen dituzten langileek eska zezaten betetzen duten lanpostuaren lehentasunezko eskalako lan-poltsan edo, hala badagokio, lan-kategorian sartzeko.

Ebazpen horretan eskaerak aurkezteko ezarritako epea igaro, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eskabideak aztertu ondoren, onartu direnak sartu dira lan-poltsen zerrendetan.

Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenean ezarritako irizpideak aplikatu ondoren gertatzen diren berdinketak direla-eta, 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotako irizpidea gehitu da, eta «G» letra erabili da jarduketak hasteko.

ANTECEDENTES DE HECHO

La Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos, establece en su artículo 4.3 que el personal que esté prestando servicios en la Administración General de la CAPV en ejecución de sentencia o transferencias de personal se incorporará en la bolsa de trabajo correspondiente al cuerpo, escala u opción, o categoría laboral correspondiente.

Mediante Resolución de 30 de agosto de 2022 del Viceconsejero de Función Pública se abrió el plazo para que el personal que presta servicios como consecuencia de ejecución de sentencias o transferencia de personal solicitase su integración en la bolsa de trabajo de la escala preferente al puesto que ocupan, o en su caso, a la categoría laboral.

Transcurrido el plazo establecido en dicha resolución para la presentación de solicitudes, y una vez analizadas por la Dirección de Función Pública, se han incluido en los listados de bolsas de trabajo las que han sido estimadas.

Ante los empates resultantes tras la aplicación de los criterios establecidos por la Resolución de 30 de agosto de 2022 del Viceconsejero de Función Pública, se ha añadido el criterio recogido en el artículo 5.3 de la Orden 7 de enero de 2021, siendo la “G” la letra de inicio de actuaciones.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 85 79 – Fax 945 01 86 48

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren laugarren apartatuan esleitutako eskumenen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen lan-poltsak argitaratzea, Funtzio Publikoko sailburuordearen 2022ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez deitutako prozeduraren ondoriozkoak.

BIGARRENA.- Lan-poltsen zerrendak Enplegatuaren atarian eta Lan-poltsen atarian argitaratuko dira, helbide honetan:

https://www.euskadi.eus/administrazio-orokorraren-lan-poltsak/web01-sedeep/eu/

HIRUGARRENA.- Lan-poltsek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, Lan-poltsen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

En virtud de las competencias atribuidas en el apartado cuarto de la Resolución del 30 agosto de 2022 del Viceconsejero de Función Pública

RESUELVO

PRIMERO.- Publicar las bolsas de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos, resultantes del procedimiento convocado mediante Resolución de 30 de agosto de 2022, del Viceconsejero de Función Pública.

SEGUNDO-. Los listados de las bolsas de trabajo se publicarán en el portal de la Persona Empleada y en el portal de Bolsas de Trabajo, accesible a través de la siguiente dirección:

https://www.euskadi.eus/bolsas-de-trabajo-de-la-administracion-general/web01-sedee/es/

TERCERO.- Las bolsas de trabajo surtirán efectos desde el día siguiente de su publicación.

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno en el plazo de un mes desde el día siguiente de su publicación en el Portal de Bolsas de Trabajo.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 25a/ 25 de noviembre de 2022

José María ARMENTIA MACAZAGA
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA/VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA